

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

Huts-zuzenketa, abenduaren 23ko 34/2021 Foru Arauaren euskarazko testuan, ekonomia suspertzeko neurriak, TicketBAI aplikatzeko neurriak eta zergen arloko neurri batzuk ezartzen dituen

Abenduaren 23ko 34/2021 Foru Arauaren euskarazko testuan, ekonomia suspertzeko neurriak, TicketBAI aplikatzeko neurriak eta zergen arloko neurri batzuk ezartzen dituen, ALHAO-ren 146. zenbakian (2021eko abenduaren 29koa) argitaratutakoa, akats batzuk aurkitu dira eta ondoren zuzenduko dira:

6. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

Hogei. 87. artikuluari 4 bis) apartatua gehitzen zaio; hona:

Honakoa dioen tokian:

“4 bis. Artikulu honen 5. apartatuaren c) letrako kasuetan, desgaitasuna ehuneko 75ekoa edo handiagoa bada eta hirugarren pertsona baten laguntza behar izateagatik 39 puntu baino gehiago lortzen badira edo mendetasuna larria bada (II. gradua) edo handia (III. gradua), kenkaria honako berezitasun hauekin aplikatuko da:

Ondokoa jarri behar da:

“4 bis. Artikulu honen 5. apartatuaren c) letrako kasuetan, desgaitasuna ehuneko 75ekoa edo handiagoa bada eta hirugarren pertsona baten laguntza behar izateagatik 15 puntu baino gehiago lortzen badira edo mendetasuna larria bada (II. gradua) edo handia (III. gradua), kenkaria honako berezitasun hauekin aplikatuko da:

Hogeita hiru. 90 quater artikulua 2. apartatuaren azken paragrafoa honela geratzen da:

Honakoa dioen tokian:

“Baldintza hauek, a), b) eta e) letretakoak ez beste guztiak, bost urtean bete behar dira entitate eratu ondoren, gutxienez. g) letrako baldintza ez da bete beharko entitatea eratu ondoko lehen sei hilabeteetan”

Ondokoa jarri behar da:

“Baldintza hauek, a), c) eta e) letretakoak ez beste guztiak, bost urtean bete behar dira entitatea eratu ondoren, gutxienez. g) letrako baldintza ez da bete beharko entitatea eratu ondoko lehen sei hilabeteetan”

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Laugarrena. Kooperatiben hezkuntza eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenetatik datozen eta helburu jakin batzuetara bideratzen diren zenbatekoen salbuespenezko zerga araubidea.

Honakoa dioen tokian:

Bi. Kooperatiben hezkuntza eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena aurreko lehen apartatuan aipatutako helburuetarako erabiltzen bada, erabilera horren zenbatekoa ez da ekitaldiko diru sarreratzat hartuko, ekarpena aplikatzen den ekitaldian, eta ez da fiskalki babestutako kooperatibaren izaera galduko; beraz, ondorio horietarako soilik,

ez da aplikatuko Kooperatiben Araubide Fiskalari buruzko ekainaren 9ko 16/1997 Foru Arauaren 123 artikuluan eta 17.4 artikuluan xedatutakoa.

Ondokoa jarri behar da:

Bi. Kooperatiben hezkuntza eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena aurreko lehen apartatuan aipatutako helburuetarako erabiltzen bada, erabilera horren zenbatekoa ez da ekitaldiko diru sarreratzat hartuko, ekarpena aplikatzen den ekitaldian, eta ez da fiskalki babestutako kooperatibaren izaera galduko; beraz, ondorio horietarako soilik, ez da aplikatuko Kooperatiben Araubide Fiskalari buruzko ekainaren 9ko 16/1997 Foru Arauaren 12.3 artikuluan eta 17.4 artikuluan xedatutakoa.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urtarrilaren 11

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA